



EUSKAL ASTEA 2022

## ORGA LEHIAKETA

Euskal Jaia dela-eta, irailaren 9rako, orga lehiaketa antolatu du Zarauzko Udaleko Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuak. Ondorengo baldintzak bete beharko dira derrigorrez:

### IZEN-EMATEA

Zarautzen erroldatutako edonork har dezake parte. Horretarako, Turismo, Ekitaldi eta Jaietako Departamentuan (Kale Nagusia 30 - Turismo bulegoa) eman behar da izena. Epea 2022ko irailaren 8an bukatuko da, 13:00etan.

Izena emandakoan, zenbaki bat jasoko du parte hartzaileak. Euskal Jai egunean zenbaki hori bistan jarri behar da.

### GAIA

Gaia librea izango da, baina euskal kulturarekin edo Euskal Jaietako ohiturekin zerikusia izango du.

### SARIAK

Guztira 1.950 € banatuko dira:

1. Saria: 300€
2. Saria: 200€
3. Saria: 150€

Gainerakoa, hau da, 1.300 euroko diru-poltsa epaimahaiaren iritziz nahikoa maila ematen duten gainerako parte hartzaileen artean banatuko da, eta ez da izango 150€ baino gehiagokoa.

### SARI BANAKETA

Orga guztiak Lege Zaharren enparantzara eraman beharko dira irailaren 9an, 13:30ean. Egun eta ordu horretan egingo da sari banaketa.

### EPAIMAHAIA

Zarauzko alkateak, Turismo, Ekitaldi eta Jaietako zinegotziak eta artearekin harremana duen pertsona batek -edo beraiek izendatutako ordezkariak- osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaiaren erabakia ezingo da errekurritu.

### BESTERIK

Ezingo dira supermerkatuetako orgak erabili.

Orgetan ez da publizitaterik egingo.

### ONARPENA

Lehiaketara aurkezteak arau hauek onartzea dakar berarekin.